

IRAGARKIA, Zumarragako Adin Txikikoen Zentroa kudeatzea helburu duen kontratu berezia esleitzeke uzten duen aitortpena jakinarazteko (KBN C06/5/2000 esp.).

38

Pribatuen Iragarkiak

EUSKO TRENBIDEAK, S.A.

IRAGARKIA, prozedura ireki bidez, Bermeoko Geltokia konpontzeko obrak egiteko lehiaketa publikoa kontratatzeko.

39

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-1

8/2000 LEGEA, azaroaren 10ekoa, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legea aldatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

AZAROAREN 10EKO 8/2000 LEGEA, GIZARTE
BAZTERKERIAREN AURKAKO LEGEA
ALDATZEKOA

ZIOEN ADIERAZPENA

Maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak –gizarte-bazterkeriaren aurkakoak– gizarte-arloko tresnak eta beharrezko laguntza ekonomikoak ezarri zituen: batetik, pertsona gizartean nahiz lan-munduan baztertzeiko arriskuari aurrea hartzeko, eta, bestetik, nork bere kontura bizitzeko modua aurrera eramateko nahikoa baliabiderik (norberarenik, gizarte-arlokorik nahiz ekonomikorik) ez dutenei gizarteratzen laguntzeko.

Legeak zioen adierazpenean zehazten zuenez, gizarte-bazterkeria ez da pobrezia kideko, baldin eta pobreziaz hartzen bada dena delako gizarteko ongizatearen erdiko mailari dagozkion ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko zailtasuna edo ezintasuna. Izan ere, bazterkeria gizarte-eskubideez baliatzeko ezintasuna edo gai-

ANUNCIO por el que se hace pública la declaración de desierto del contrato especial que tiene por objeto «la gestión del Centro de Menores de Zumárraga» (Expte. C.C.C. n.º C06/5/2000)

38

Anuncios Particulares

FERROCARRILES VASCOS S.A.

ANUNCIO para la contratación por el procedimiento abierto de concurso público relativo a obras de reforma en la Estación de Bermeo.

39

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-1

LEY 8/2000, de 10 de noviembre, de modificación de la Ley contra la Exclusión Social.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 8/2000, DE 10 DE NOVIEMBRE, DE
MODIFICACIÓN DE LA LEY CONTRA LA
EXCLUSIÓN SOCIAL

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, estableció los instrumentos de carácter social y las prestaciones económicas necesarias para prevenir el riesgo de exclusión personal, social y laboral, así como para contribuir a la inserción de quienes carecen de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para desarrollar una vida independiente.

La citada ley advertía en su exposición de motivos que no debe identificarse la exclusión social con la pobreza, entendida como dificultad o imposibilidad de acceso a los bienes y servicios propios del nivel medio de bienestar de una determinada sociedad, pues aquella se define como la imposibilidad o la incapacidad de ejer-

tasunik eza da, batez ere lan egiteko eskubideaz baliatzeko ezintasuna, baina baita hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubideaz, kultura, osasuna eta etxebizitza duina izateko eskubideaz edo gizarte-babesa jasotzeko eskubideaz baliatzekoa ere.

Aurrekoa horrela izanda ere, hona hemen gizarte-bazterkeria izateko arrazoi larriena, ohikoena eta agerikoena: nahikoa baliabide ekonomikorik ez izatea bizi-modu independentea duintasunez aurrera eramateko.

Horregatik, Gizarte Bazterkeriaren Aurkako Legeak, aurreko araubideak zituen ezaugarriak gordeta, era osoagoan eta zehatzagoan arautu zuen gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerara, betiere honela ulertuta: gutxieneko diru-sarrera aldiari aldiko dirulaguntza da, bizi-zeko oinarrizko gastuei aurre egiteko beste diru-baliabide ez duten pertsonen premiak betetzen laguntzen duena. Legeak, halaber, diru-laguntza hori lortzeko irizpide ez-ekonomikoak aldatu zituen zati batean, gaur egun ia inolako babesik gabe dauden pertsonen ere laguntza jaso ahal izan dezaten.

Dena dela, 18. artikuluko 1. paragrafoko d) idatzatiaz ezartzen denez, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren eskubideduna izateko, beharrezkoa da 25 urtetik gorakoa izatea eta, aldi berean, kasuan kasuko legerian zahartzarora dela eta pentsio publikoa eskuratu ahal izateko jarritako gutxieneko adina baino urte gutxiago izatea.

Azken baldintza horri eustearen ondorioz, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbait eskubidedunek, adin hori lortuta, galdu egiten dute delako dirulaguntza jasotzeko eskubidea; izan ere, adin horretan, eskubidea dute bestelako laguntzak (ekonomikoak, medikuntzakoak, farmaziakoak eta gizartekoak) hartzeko. Baina horrek, aldi berean, nabarmen urratzen du pertsona horien ekonomia nahiz gizarteratzea, eta hori bigabekeria da babes berezia behar duten horientzat, betiere benetako aukera emango bazaie dagozkien gizarte-eskubideez baliatzeko.

Egoera oker hori konpontzeko, Eusko Legebiltzarra, 1999ko azaroaren 26an hartutako erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioei eskatu zien behar diren legezko aldaketak egin zitzatela errenta hori lortzeko baldintza guztiak –gehieneko adina izan ezik– betetzen dituzten pertsona guztiek, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren bidez, aukera izan dezaten oinarrizko beharrak eta gizarteratze-prozesutik datozenak asetzeko. Legebiltzarren erabakian esaten denez, aldaketak ekar ditzakeen ekonomia-ondorioek Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura joan beharko dute.

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak –Euskal Autonomia Estatutuarenak– I. tituluan, «Euskal Herriari dagozkion konpetentziak» deritzonean, 10. artikuluko 12. eta 39. paragrafoetan, ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoari baino ez dagokio gizarte-laguntzako eta hirugarren adinekoen aldeko politikako eskumena.

cer los derechos sociales, fundamentalmente el derecho al trabajo, pero también el derecho a la educación, a la formación, a la cultura, a la salud, a una vivienda digna, a la protección social.

No obstante lo anterior, es cierto que la causa más grave, frecuente y visible de las situaciones de exclusión social se refiere a la carencia de recursos económicos suficientes para desarrollar, con dignidad, una vida independiente.

Por ello, la ley contra la Exclusión Social, manteniendo la naturaleza que le atribuía la normativa anterior, reguló de manera más completa y detallada el ingreso mínimo de inserción, definido como una prestación periódica de naturaleza económica dirigida a cubrir las necesidades de aquellas personas que carecen de recursos económicos suficientes para hacer frente a los gastos básicos para la supervivencia, pero modificando parcialmente los criterios no económicos de acceso a dicha prestación al objeto de que pudiera extenderse a colectivos que quedaban excesivamente desprotegidos.

Aun así, el artículo 18.1 d) establece como requisito para ser titular del derecho al ingreso mínimo de inserción la circunstancia de ser mayor de 25 años y menor de la edad mínima exigida por la legislación correspondiente para tener derecho a una pensión pública por vejez.

El mantenimiento de este último requisito tenía como consecuencia el hecho de que determinados titulares del ingreso mínimo de inserción, al alcanzar esa edad, dejaban de percibir esta prestación para causar derecho a otro tipo de ayudas y prestaciones económicas, médicas, de farmacia y sociales, que, en general, producen un quebranto económico y de integración social evidente e injustificado para este colectivo especialmente necesitado de protección y asistencia para un efectivo disfrute de sus derechos sociales.

Con el objetivo de solucionar esta situación anómala, el Parlamento Vasco, mediante acuerdo de 26 de noviembre de 1999, instó a las Administraciones públicas vascas a impulsar las modificaciones legales necesarias con el fin de garantizar la cobertura mediante el IMI de las necesidades básicas y las derivadas de un proceso de inserción social a todas las personas que cumplan los requisitos para acceder a esta renta excepto la edad máxima, asumiendo las consecuencias económicas que se puedan derivar de esta modificación con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomía para el País Vasco, dentro del Título I «De las competencias del País Vasco», en el artículo 10, apartados 12 y 39, reserva a la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia exclusiva en el ámbito de la asistencia social y la política de la tercera edad.

Horiek horrela, Eusko Jaurlaritzak, zuzenbideko oinarri horren babesean, bete egingo du Legebiltzarrak 1999ko azaroaren 26an hartutako erabakia, eta horretarako, funtsean, honako legezko aldaketa hau egin du: kendu egin da gizarteratzeko gutxieneko diru-sarreraren lortzeko ezinbestekoa zen gehienezko adinaren baldintza, eta, ondorioz, berriro idatzi du 18. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatia.

Artikulu bakarra.— Idazkera berria eman zaio maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 18. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatiari, eta honela geratu da:

«d) 25 urtetik gorakoa izatea.

Nolanahi ere, 25 urte baino gutxiago dutenak, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte eta beren ardura ekonomikoaren pean adin txikikoak edo elbarriak badituzte, salbuetsita egongo dira, bai eta aitarik edo amarik ez dutenak ere. Halaber, hogeita bost urte baino gutxiago dutenak, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte eta sei hilabete lehenagotik ezkontuta badaude edo ezkontzaren antzeko egoera baitan badaude, salbuetsita egongo dira.»

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Lege hau aplikatuko zaie legea bera indarrean jarri baino lehenagotik gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerarako eskubidea aitortu, berraztertu, aldatu, eten eta kentzeko hasita zeuden prozedurei.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Erregelamendu bidez garatzea.

Eusko Jaurlaritzak baimena du lege hau garatu eta ezartzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena.— Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Beraz, lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko azaroaren 27a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

En consecuencia, el Gobierno Vasco, al amparo del fundamento jurídico habilitante citado, procede a cumplir el acuerdo parlamentario de 26 de noviembre de 1999 mediante la presente modificación legal, que consiste, básicamente, en la supresión del requisito de la edad máxima para acceder al ingreso mínimo de inserción, dando una nueva redacción al apartado d) del número 1 del artículo 18.

Artículo único.— Se da nueva redacción al apartado d) del número 1 del artículo 18 de la Ley 12/1998, de 22 de mayo, contra la Exclusión Social, que queda redactado de la manera siguiente:

«d) Ser mayor de 25 años.

Quedan exceptuados los menores de 25 años que, reuniendo el resto de los requisitos, tengan económicamente a su cargo a menores o a personas con minusvalía, así como los huérfanos de padre y de madre. Igualmente se considerarán exceptuados los menores de 25 años que, reuniendo el resto de los requisitos, estuviesen unidos a otra persona por matrimonio u otra forma de relación permanente análoga a la conyugal con al menos seis meses de antelación.»

DISPOSICIÓN TRANSITORIA ÚNICA

La presente ley se aplicará a los procedimientos de reconocimiento, revisión, modificación, suspensión y extinción del derecho al ingreso mínimo de inserción iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la misma.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— Desarrollo reglamentario.

Se autoriza al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente ley.

Segunda.— Entrada en vigor.

La presente ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de noviembre de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.